

Nafarroako Gobernuaren 2023-2027 Akordio Programatikoaren balorazioa

*Botere
ekonomikoen
pribilegioei eta
elkarrizketa
sozialaren
finantzaketari
eusten dien
eta
euskararen
esparruan
atzerapausoak
dituen
akordioa*



www.ela.eus
2023ko iraila



EUSKAL SINDIKATUA

1. SARRERA

2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeen ostean, PSNk, Geroa Baik eta Contigo Zurekin taldeak akordioa sinatu zuten Nafarroako Gobernua osatzeko. "Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta plural baterako akordio programatikoak (2023-2027)" jarraipena ematen die aurreko lege-gintzaldiko Nafarroako Gobernuaren formatuari eta orain arte egin dituen politikei.

Akordioaren edukitik ezin da ondorioztatu sinatzaileek inolako aldaketa garrantzitsurik egin nahi dutenik Nafarroako arlo sozialean edo ekonomikoan. Argi dago alde batera utziko dituela inflazioaren hazkundeak eta interes tasek hipoteketan edo alokairuen garestitzeak eragindako pobretze orokorraren testuinguruan dauden gizarte premia nagusiak.

Akordioaren abiapuntua botere ekonomiko eta patronalen interesak zalantzan ez jartzea da (edo are gehiago, haien pribilegioak zabaltzea), eta patronala finantzatzen jarraitzea, UGTrekin eta CCOOrekin batera, elkarriketa sozialaren bidez. Akordioaren edukiaren azterketak ez du inolako aurrerapenik aurreko lege-gintzaldiko akordio programatikoarekin alderatuta.

ELAren ustez, akordio programatikoak ez ditu betetzen Nafarroak behar duen aldaketa sozialean aurrera egiteko behar den gutxiengoarekin. ELAk proposamenak egiten jarraituko du langileriarentzat bidezkoagoa den gizarte eredu baterantz aurrera egiteko, eta bide horretan gizarte mobilizazioa ezinbestekoa dela uste du.

2. AKORDIOAREN EDUKIAREN BALORAZIOA

2.1. Akordio propagandistikoa, generikoa eta zehaztasunik gabea

Testu generikoa da, sinesgarritasun gutxikoa eta zehaztasunik gabea edozein konpromiso hartzerakoan. Jasotzen dituen konpromisoetako batzuk azterlanak, planak edo analisiak egitea dira, eta hauek egiten badira ere, ez dute inolako aldaketarik edo hobekuntzarik suposatuko. Akordioan zehar, "baloratu, bultzatu, sustatu, aurrera egin, azterketa bat egin..." bezalako esamolde asko daude. Termino hauek ez dute inolako zehaztasunik neurriak ezartzeko, eta, batez ere, propaganda asmoari erantzuten diote.

Nafarroako Gobernu berriaren osaketarako negoziazioan argi geratu da alderdi politikoen lehentasuna kontseilaritzen banaketa izan dela, akordio programatikoaren edukia bigarren maila batean geratu baita.

2.2. Autogobernua gauzatzeari uko egiten dion eta Madrilen ezartzen diren aurrekontu mugak onartzen ditu akordioak

Egonkortasun eta Hazkunderako Ituna lau urtez etenda egon ondoren, Europako Batzordeak gastua kontrolatzeko eta doitzeko mekanismoak berritzea erabaki du 2024rako. Hau da, 2024tik aurrera, Nafarroako aurrekontuak berriro mugatuko dira gastu arauarekin, eta horrek oso ondorio txarrak izango ditu zerbitzu publikoetan eta gizarte prestazioetan. Akordioaren testuak ez du gai hori aipatu ere egiten. Aurrekontu mugak Madrilen ezartzea onartzeak, irizpide murriztaileekin, praktikan, berezko aurrekontu politikari uko egitea dakar, Hitzarmen Ekonomikoa zalantzan utziz.

Gainera, autogobernuari buruz egiten den erreferentzia bakanetako bat fiskalitatearen atalean da, enpresen pribilegio fiskalak zabaltzeko helburu bakarrarekin. Zehazki, "zerga arloan dugun autogobernua aprobetxatuz, enpresei laguntzen jarraituko dugu..." jasotzen da.

Bestalde, sinatzaileek LORAFNaren esparrua onartzen dute, marko hau zalantzan jarri gabe.

Eguneratzearen aldeko apustua baino ez dute egiten, eguneratze hori zertan datzan zehaztu gabe. Ondorioz, ez da aurreikusten Nafarroako herritarrei hitza ematea inoiz bozkatu ez duen Lege bati buruz, erreferendumera aurkeztu ez zen Autonomia Estatutu bakarria izanik LORA-FNA.

2.3. Fiskalitate eskasa eta bidegabeta mantentzen da, eta uko egiten zaio banku publiko bat sortzeari eta zorraren auditoria egiteari.

Ogasunari, baliabide publikoei eta fiskalitateari buruzko atalak orrialde erdia baino zertxobait gehiago hartzen du. Hamar puntu dira, eta zerga politika berberarekin jarraitzea eta enpresen pribilegioak babestea eta zabaltzea dute ezaugarri.

Ez da jasotzen zerga erreformarik egin behar denik diru bilketa handitu eta bidezkoagoa izateko laneko errentak dituztenentzat. Sinatzaileek hasieratik zerga erreforma errefusatu izana gaitzesten du ELAk. Gogoratu behar da Europako konparazioak erakusten duela Nafarroak presio fiskalean duen defizita izugarria dela: 2.300 milioi euro gehiago bildu beharko lirateke (BPGren 10,9 puntu) Europako batez bestekoa berdintzeko. Gainera, sistema fiskala guztiz bidegabeta da langileriarentzat: bilketaren ia erdia zeharkako zergetatik dator (ordaintzen dituenaren ahalmen ekonomikoa kontuan hartzen ez dutenak), eta zuzeneko zergen bidez bildutako 10 eurotik 7 laneko errentei jasotzen zaizkie.

Zoritarrez, akordio programatiko honek bermatzen du 2023an Yolanda Barcinak 2015ean utzitako ia fiskalitate bera izango dugula.

Azkenik, akordioak ez du jasotzen zor publikoaren auditoretzari edo banku publiko baten sorrerari buruzko aipamenik ere (desadostasunen atalean agertzen da banku publikoa sortzea).

2.4. Aurrekontu handiagoa behar duten konpromisoak ez dira sinesgarriak

Etxebizitza edo hezkuntza ataletan, besteak beste, akordioak gastua handitzeko konpromisoa jasotzen du. Etxebizitzari buruzko lehen puntua "etxebizitzarako inbertsio publikoa handitzea da, Europako batez bestekoarekin parekatu arte", eta hezkuntzan "hezkuntzako gastu publikoa pixkanaka handitzea, BPGren % 5eko kotetara hurbilduz..." aipatzen da.

Konpromiso hauek ez dira sinesgarriak, eta are gehiago kontuan hartzen badugu 2019ko Akordio Programatikoak jada jasotzen zuela baliabide publikoak BPGren %5era arte handitzeko konpromisoa hezkuntzan, eta BPGren %6,5era arte osasunean. Konpromiso horiek ez dira bete: Nafarroako 2023ko aurrekontuetan hezkuntzara BPGren %3,8 bideratzea aurreikusten da (285,6 milioi gutxiago), eta BPGren % 5,6 osasunari (214,2 milioi gutxiago).

ELA bat dator gizarte politika guztietara bideratutako zuzkidura ekonomikoa nabarmen handitzeko behararekin. Hala ere, akordioak aurrekontu egonkortasuna bere gain hartzen duenez eta zerga erreforma egiteari uko egiten dionez, ondorioztatu dezakegu propagandatik konpromiso erreal batetik baino gehiago duten adierazpenen aurrean gaudela.

2.5. Elkarrizketa soziala finantzatzen jarraituko da, eta uko egiten zaio Nafarroako Lan Auzitegiaren birfundazioari

2021-2024 Enplegu Planaren bidez elkarrizketa soziala finantzatzen jarraitzearen aldeko apustua egin du akordio programatikoak. Akordio horrek UGTren, CCOOren eta patronalaren esku utzi zuen 700 milioi euroko kudeaketa.

Testuak Elkarriketa Sozialaren aldeko apustu garbia egiten du, Nafarroan funts publikoak patronalari, UGTri eta CCOOri eskualdatzearen sinonimo izanik. ELAk deitoratu egin du PSNk, Geroa Baik eta Contigo Zurekin taldeak porrot egin duen eredu bat sustatzen jarraitzea, Nafarroako Gobernuaren politikekin bat egitearen truke finantzaketa propioa helburu duena. Urte askotan izan diren erregimen klientelarreko egituren desegitean aurrera egin beharrean, aurreko legegintzaldian elkarriketa sozialean parte hartzen duten hiru erakundeek (CEN, UGT eta CCOO) aurrekontu bidezko finantzaketa berreskuratu da. Hau ez zen gertatzen UPN Nafarroako Gobernutik atera zenetik.

Gainera, atal honetan, ELAk kezkaz ikusten du 2019ko akordio programatikoan Podemosek desadostasuna agertu zuela elkarriketa sozialaren atalean, eta Contigo Zurekin taldeak, berriz, ontzat eman duela 2023ko akordio programatikoan.

Enpleguari buruzko atalean, besteak beste, lan harremanen inguruko kultura sustatzeaz eta elkarriketa sozialaren bidez itun sozial eta ekonomikoa egiteaz edo lurraldeko prebentzio ordezkararen figura indartzeaz hitz egiten da. Denak neurri zaharrak dira, eta beren helburu teorikorako alferrikakoak direla frogatutakoak. Errealitateak erakusten du, ordea, langileen lan baldintzak hobetzea ez datorrela hutsalak diren mahai horietatik, baizik eta langile klaseak lantokietan sindikalizatzeko eta mobilizatzeko duen gaitasunetik.

Bestalde, ez da hitz egiten, adibidez, kontratazioan dagoen iruzurraren aurka borrokatzeaz, sektore publikoko eta administrazioako azpikontratetako lan baldintzak hobetzeaz edo NOPLOko langile kopurua Europako batez bestekoarekin parekatzeaz. Zentzu honetan, gogoratu behar da ELA dela Kontseiluan egotearekin laneko segurtasun eta osasunaren arloko politika eskasak legitimatzen ez dituen sindikatu bakarra.

Urte askotan izan diren erregimen klientelarreko egituren desegitean aurrera egin beharrean, gogoratu behar da elkarriketa sozialean parte hartzen duten hiru erakundeek (CEN, UGT eta CCOO) aurrekontu bidezko finantzaketa ez zela gertatzen UPN Nafarroako Gobernutik atera zenetik, eta aurreko legealdian berreskuratu dela.

Azkenik, testuan ez da inolako aipamenik egiten Nafarroako Lan Auzitegiaren birfundazioari buruz, gatazkak bazterketarik gabe konpontzeko organo bihurtzeko eta funtzionamendu demokratiko eta inpartzialagoa izateko.

2.6. Interes ekonomikoa lehenesten da ingurumen politikaren aurretik

Ingurumenari buruzko puntuan jasotzen diren konpromiso gehienak zehaztasunik gabeak dira, eta "bultzatu, sustatu edo aurrera egin" terminoekin hasten dira. Neurri zehatzenak ingurumen fiskalitateari buruzkoak dira. Hau da, neurri horiek ez daude bideratuta gizartearen beharrak asetzera, baizik eta enpresen interes ekonomikoa babestera.

Erabat inkoherentea eta sinesgaitza da klima aldaketaren aurkako ekintzez hitz egitea, AHT edo Erdizko meategia bezalako proiektuen aldeko apustua egiten jarraitzen den bitartean.

Horrela, sakonera handiko krisi ekologikoa eragiten ari den eredu ekonomikoarekin jarraitzea planteatzen da. Eredu hori errotik eraldatzeko politika publikoak izan beharko lukete lehentasuna, horrek dakarren erronkaren arabera aurrekontu zuzkidura ezarritik. Akordio honen sinatzaileek begiak itxi dituzte errealitate honen aurrean.

2.7. Akordioak atzerapausoak ditu euskarari dagokionez

Orain arte esan dugu akordio programatikoak jarraikortasuna dakarrela aurreko legeegintzaldiko akordio programatikoaren aldean (fiskalitate bera, elkarrizketa soziala finantzatzea, AHT...).

Hala ere, euskarari dagokionez, akordio programatiko hau atzerapausoa da 2019. urteko akordioarekin alderatuta. Atzerapauso hau argi ikusten da 2019ko akordioan euskarari buruzko 11 puntu jasotzetik 2023ko akordioan 8 puntu jasotzera pasa delako. 2019tik desagertu den akordioetako bat Euskararen II. Plan Estrategikoa egiteko konpromisoa da. Hau desagertzea ulertezina da, are gehiago aurreko legeegintzaldian plan hori egiteko egin zen lanketa kontuan hartuta.

Gainera, 2023ko akordioak 1986ko Euskararen Legea adostasun arau gisa mantentzen du, eta horrek legeegintzaldi honetan ez dela zonifikazioarekin amaituko suposatzen du. Zonifikazioaren mugak gainditzeko bidean ere ez da aurrera egiten. Izan ere, besteak beste, Nafarroako eremu zabal batean alermana bezalako atzerriko hizkuntzei lehentasunezko tratua ematen jarraituko da.

Ez da onargarria akordio programatikoak "Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen gomendioak eta Adituen Batzordearen Ebaluazio Txostenaren oharra" aipatzea, erakunde horiek Nafarroako hizkuntza zonifikazioarekin kritikoak izan direnean.

3. EZ ZAIO AURRE EGITEN GENERO DESBERDINTASUNARI

Genero ikuspegitik oso agerikoa da konpromiso zehatzik ez dagoela eta testu anbigua eta zehaztasunik gabea idatzi dela. Horren froga da adostutako neurrien artean dagoela sexuagatiko diskriminazioei aurre egiteko azterlan tekniko juridiko bat egitea, neurri zehatzik hartu gabe.

Akordio programatikoak ez du zalantzan jartzen egungo zaintza sistema, bizitza duin baterako oinarritzak dena eta mugimendu feministaren aldarrikapen historiko eta nagusi bat denean, azaroaren 30eko greba orokor feministan gauzatuko dena.

Illo horretan, Nafarroako Gobernuak ere ez du jasotzen Nafarroako egoitzen lehen hitzarmena gauzatzeko konpromisoa. Izan ere, sektore honetan langileek bi urte baino gehiago daramatzate gatazkan, eta Gobernuak da inplikatu nagusietako bat. Egoera horri ez zaio erreferentzia egiten akordioaren 57 orrialdeetan.

4. ONDORIOAK

- Akordio anbigua eta generikoa da, propaganda izaera nabarmena du, eta ez du konpromiso zehatzik.
- Akordioaren edukitik ezin da ondorioztatu sinatzaileek inolako aldaketarik egin nahi dutenik Nafarroako arlo sozialean edo ekonomikoan. Argi dago alde batera utziko dituztela pobretze testuinguruan dauden gizarte premia nagusiak.
- UPNk gobernatzen zuen garaietako fiskalitate bidegabe eta eskasari eusten dio akordioak.
- Akordio honek UGT, CCOO eta patronala finantzatzen jarraituko du elkarrizketa sozialaren bidez, eta uko egiten dio Nafarroako Lan Auzitegiaren birfundazioari.
- Genero desberdintasunari aurre egiten ez dion akordioa, interes ekonomikoa ingurumenaren aurretik lehenesten duena (AHT, Erdiz meategia...).

- Eta, azkenik, euskarari dagokionez atzerapausoa dakarren akordioa da.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA